# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

## 3316

*EBAZPENA, 2022ko uztailaren 5ekoa, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearena, Hezkuntzako sailburuaren 2021eko irailaren 13ko Aginduaren bidez iragarritako dirulaguntzen erakunde onuradunen zerrenda argitaratzeko dena (2022ko ekitaldian ekipamendu zientifikoa eskuratzeko laguntzen deialdia; 2021eko irailaren 22ko EHAA, 190. zk.).*

Deialdi-aginduaren 14. artikuluaren arabera, Hautaketa Batzordeak Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeari aurkeztuko dio ebazpen-proposamena, eta hark esleipenak egingo ditu ebazpen baten bidez; ebazpen hori Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratuko da, hargatik eragotzi gabe gerora EHAAn laguntzen erakunde onuradunak eta eman zaizkien diru kopuruak zein izan diren argitara ematea, publizitate-ondorioetarako.

2022ko ekainaren 15ean ebatzi zen deialdia, eta hurrengo egunean Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu zen ebazpena; beraz, argitara eman behar da zein izan diren laguntzen erakunde onuradunak eta zein emandako diru kopuruak, publizitate-ondorioetarako. Horregatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Hezkuntzako sailburuaren 2021eko irailaren 13ko Aginduaren babesean, ekipamendu zientifikoa eskuratzeko emandako laguntzen erakunde onuradunen zerrenda eta diru kopuruak argitaratzea (agindu horren bidez, 2022ko ekitaldian ekipamendu zientifikoa eskuratzeko laguntzen deialdia egin zen; 2021eko irailaren 22ko EHAA, 190. zk.). Ebazpen honen eranskinean ageri dira erakunde onuradunen zerrenda eta emandako diru kopuruak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 5a.

Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea,
ADOLFO MORAIS EZQUERRO.

# ERANSKINA

## ERAKUNDE ONURADUNAK

| Espediente-zk. | Hurrenk | Ekipamendua | Ikertzaile nagusia | Erakundea | 1. Laguntza-erakundea | Emandako zenbat |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EC_2022_1_0031 | 1 | Karbono 11-z markatutako erradiotrazadoreen sintesirako modulu automatikoa | Llop Roig, Jordi | Asociación Centro de Investigación Cooperativa En Biomateriales-CIC Biomagune | Achucarro Basque Center for Neuroscience Fundazioa | 91.000,00 |
| EC_2022_1_0011 | 2 | Mikrouhinen erreaktorea | Delgado De, Lacruzjuanlui | Basque Center for Macromolecular Design and Engineering-Polymat Fundazioa | Asociacion Centro de Investigacion Cooperativa en Nanociencias «CIC Nanogune» | 35.968,24 |
| EC_2022_1_0005 | 3 | Indar Atomiko Multifuntzionaleko Mikroskopioa (Multifunztional Atomic Force Microscope) | García Lecina, Eva | Fundación Cidetec | Fundación Bcmaterials-Basque Center for Materials Applications and Nanostructures | 84.000,00 |
| EC_2022_1_0019 | 4 | Azken Belaunaldiko Ekorketako Kalorimetroa | Fernandez Alonso, Felix | Asociacion de Investigacion MPC – Materials Physics Center | | 60.370,84 |
| EC_2022_1_0022 | 5 | 6 hazbeteko ganbera duen ALD gordailuaren sistema | Knez, Mato | Asociacion Centro de Investigacion Cooperativa en Nanociencias «CIC Nanogune» | Basque Center for Macromolecular Design and Engineering-Polymat Fundazioa | 72.000,00 |
| EC_2022_1_0033 | 6 | Biomarkatzaileak Ultasonido bidez garatzeko Deusbio plataforma | Sanabria Martin, Sergio Jose | Universidad de Deusto | Asociación Centro de Investigación Cooperativa en Biotecnología – CIC Biogune | 70.215,20 |
| EC_2022_1_0009 | 7 | Perfilometro-Ukipenik gabeko 3D profilometro optikoa | Olaizola Izquierdo, Santiago Miguel | Asociación Centro Tecnológico CEIT | | 86.445,72 |